


25 zka 1995.eko urtarrila



# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Geu gara  
**GEU**



**kide**

**APAINDURA**

Cercas Bajas, 27

Tfnoa: 14 41 95

GASTEIZ

# ZURE HARATEGIAK

Jose Luis  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13  
☎ 28 79 42  
GASTEIZ



**SANTI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17  
☎ 270790  
GASTEIZ

**XABIER**  
**AIZPEOLEA**  
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48  
2 eta 3  
Abastos Azoka ☎ 26 78 97  
2 eta 3  
GASTEIZ



**JOSEBA**  
HARATEGIA  
PARAGUAY MERKATUA  
10 ZENBAKIA  
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89  
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak**

*ankerarik zabalena  
kalitaterik onena*

# geu GASTEIZ Urtarrila

## Atzoko eta gaurko gabonak Gasteizen

7. orrialdea



## GEU gara GEU

honela egiten da GEU  
GASTEIZ

10. orrialdea



Oihane Perearekin  
hizketan

inkestak

...eta askoz gauza  
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

# Urte berriko ur berria

**GASTEIZ ERDIAN**, jaietan Zeledon jaisten den plaza berean, optika denda bat dago. Andra Mari Zuriaren Plaza da hori eta, urtero-urtero, ene opariak banatzeko zer eguraldi egingo duen ikusteko (ni dagoeneko nahikoa zahartuta bainago), optika dendara hurbiltzen naiz, izkina batean dagoen bitrinara. Bertan, kristal baten atzealdean, hiru neurgailu biribil daude: termometroa, barometroa eta higrometroa. Horien azpian JOERA hitza agertzen da, eta honen alboetan bi triangelu tiki. Buruz behera dagoen gorria piztuta baldin badago, seinale du eguraldi txarra datorrela: aitzitik, gorantza dagoen berdea piztuta ikusiz gero, eguraldi ederra datorrela esan nahi du eta lasai ibil naitekeela.

Bada azken urteotan Gasteizera heldu naizen bakoitzean, triangelu gorria ikusi dut piztuta; inguruan zebilen jendea ere begiratu eta iruditu zait eguraldiaren antzera dabilela. Eta egia esan, gauza bera gertatzen zait Euskal Herriko gainerako herri eta hirietan ere. Euskal herritarrek burumakur eta goibel ikusi izan ditut, korrika eta presaka, aztoratuta eta erretxinduta, petralduta eta ozpinduta. Eta egia esan, gauza bera entzun diet Ekialdeko Hiru Erregeei, Santa Klaus, San Nikolas eta gainerako lagunei. Beraiek ere jendea burumakur eta goibel ikusten dute, korrika eta presaka, aztoratuta eta erretxinduta... Eta gure opariekin hasiera batean pozten badira ere, berehalaxe aspertu eta bihotza ilundu eta tristetu egiten zaie.

Larriturik, iaz Ekialdeko Hiru Erregeak bizi diren Koloniako katedralean bildu ginen. Elkarri galdera hau egin genion: Zer egin gorantza dagoen triangelu berdea pizteko, zer egin jendea pozteko? Eta ukalondoak mahaian tinkotu, kokotsa eskuetan -pausatu eta pentsatzen eta pentsatzen hasi ginen. Baina pentsatu eta pentsatu (alkimia formulak, botikak, aztikeriak, sorginkeria...) eta dena alferrik izan zen.

Halako batean Tuteran bizi eta gu bezain zaharra den astrologo batekin gogoratu



nintzen, Ibrahim Ibn Abu Ayubekin. Eta Santa Klausori oreinak eskaturik, lagun oniritziarekin, di-da abiatu nintzen Tuterako Mairumendira, gure arazoaren konponbidea abenduaren hogeita laurako behar baikenuen. Pentsatu bezala, Ibrahim Ibn Abu Ayub bere leizezuloan zegoen, bere teleskopioari pega-pega eginda, eta ene kezka agertu nionean, puska batean isilean eta pentsakor egon ostean, esan zidan:

—Badakit zer egingo dugun. Ontzi tikietan osagai hauek sartuko ditugu: txorien txorrotxioa, barearen lasaia, egusentien ederra, ilunabarren patxada, kattagorrien biza, izurdeen alai... Eta ontziak bete ondoren, beren edukia hiriak eta herriak hornitzen dituzten urtegi eta ur depositoetan isuriko dituzue, eta ura edan ahala, jendea oharkabean kantariago, lasaiago, ederrago, patxadatsuago, biziago, alaiago... ikusiko duzue. Horratx.

Eta pozaren pozez, abenduaren hogeita laua baino lehen Koloniako lagunengana itzuli, ontziak lehenbailehen bete (laguntzaile fin eta trebe asko baititugu) eta nor bere opari banaketa, nor bere ontzi isurketa egitera joan zen. Abendu honetan denok ala denok ere pozarren abiatu ginen, zeren jendea, ura edatearekin eta oharkabean, zoriotsuago bizitzen hasiko baita: kantariago, lasaiago, ederrago... Eta jakina, triangelu gorriak pizten jarraituko badu ere, aurtan berdea sarriagotan piztuko da.

**Olentzero**

## GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon  
Aldizkaria

1691 Postakutxa  
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin  
5.000 Aleko Tirada  
Lege-Gordailua VI-582/92  
ISSN: 1133-0988

**Erredakzio-batzordea:** Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri  
**Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo  
**Koordinatzailea:** Inaxio Lopez de Arana  
**Komikia:** Iñigo Sarasola  
**Marrakziak:** Aitziber Iriondo  
**Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo  
**Publizitatea:** Rakeel Peña, Martin Rezola  
**Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia  
**Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika  
**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)  
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunik

**GASTEIZ** aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA: \_\_\_\_\_

ABIZENAK: \_\_\_\_\_

KALEA: \_\_\_\_\_

Kode Postala: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_

Pisua: \_\_\_\_\_

ZKIA: \_\_\_\_\_

## Kalea mintzo

# 1994 agur 1995 ongi etorri !



RUBEN BASTERRA  
ikaslea

### URTARRILEAN

gaude eta 1994. urtea atzean utzita, 1995.ari aurre egin behar diogu ezinbestean. Garai egokia dugu oraingoa joan den urteak emandakoa aztertzeko eta jaio berri den honetarako planak eta ametsak osatzen hasteko. Horiek guztiak guri jakinarazteko aukera eman diegu gasteiztar batzuri. Horra hor beren gazi-gozaok eta nahiak.



1. Zer da 1994an gertatu zaizun gauzarik oneta eta txarrena?

2. 1995rako desiorik?

1. Onena izan da lanpostu bat aurkitu dudala nahiz eta hiru hiletarakoa baino ez izan: okerre... ba... ez dakit, b eno bai, ligatu gabe geratu naizela.

2. Kurtsoa gaintzea eta, batez ere, urtea ondo pasatzea.

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



## BERTSOAK

GAIA:

**Gabonetan  
gaude**

EGILEA:

Zigor Enbeita

DOINUA:

zortziko handia



## oharra

Lehen aldizkaria hilabetero iristen bazen zure etxera baina azken bolada honetan jasotzen ez baduzu, deitu 26 25 92 telefonora kontu hori lehen bait lehen konpontzeko

I

Gobonak dira berriro ere Jesukristo jaioko da Kristautasunak egun hauetan antza egiten du gora Nahiz eta gero urte osoan eliza utzi albora norbaitek modan jarriez gero guztientzako da moda

II

Nahiz eta ohiturak eraldatzea ez den daudakan asmoa niretzat ez du zer berezirik eta azaltzera noa garai honetan nabaritzenda erostearen monoa kristau festa bat noizbait izan zen orain da kntsumismoa

**Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47  
•GASTEIZ



EVA ESPINOSA  
langabea



MARIA ESPINOSA  
ikaslea



ALVARO GARCIA  
langilea



JON TRES-CASTRO  
sendagilea



SONIA ROMERO  
ikaslea

1. 1994. urtea txarra izan da niretzat, gauza txarrak soilik kontu diezazkizuet, beraz. Langabezian egon naiz, etxeko bat gaixorik izan dugu, dena oso gaizki.

2. Lana eta osasuna, horrekin aski da eta espero dut urte berri hau 1994 baino hobea izatea

1. Onenak, ba..., betikoak: lagun berriak, ikasketak ondo amaitu. Gauza txarrak? Lagun batek kanpora ikastera joan behar izan du eta harremana galdu dugu.

2. Urte berri hau atzean utzi duguna bezalakoa izatea, besterik ez.

1. Urte langabezian has baina gero lan bat aurkitu nuen. Horixe izan zen gauzarik onena. Okerrena, aldiz, langabezian egon nintzeneko garaia.

2. Ez dakit, gauzak errotik aldatzea. Euskal Herri osoan, egoera dexente hankaz gora baitaigo arlo guztietan.

1. Osasun arazorik ez dudala eduki izan da hoberena eta okerrera... ez dakit zer esan, zerbait txarra esateagatik... errenta aitortpen a.

2. Ahal bada, nire ingelesa maila hobetzea.

1. Onena izan da Udaletxeko pisu horietako bat tokatu izana. Okerrena, dudarik ez, kotxe-istripu bat izan nuela.

2. Gerrak buka daitezela, kutsadura desager dadila eta oraindik garrantzitsuagoa dena: nik euskara ondo ikastea



## Navalcarnerotik

Postariak ekarria

**KALTEGARRIEN** moduloan nago, bakarrik, kiderik gabe. Gaixo larri guztiak hemen daude. Hemen denetarik dago: birikietako gaixoak, herpea, HIESa...

Asistentzia medikua da gehien kezkatzen nauena. Sendagileak ez dira gauza ospitalatzerik esijitzeko eta are gutxiago 60. artikulua betetzeko.

Bigarren graduko erregimena daukat. Egun osoa ematen dut patioan, ziegara ezin igo. Ez dut orakurri, idatzi edota ikasteko aukerarik. Derrigorrezkoa da. Funtzionarioak zeldak ixten dituen barruan egonez gero parte ipiniko dizute eta bertan eukiko zaituzte bazkalordura arte, inolako aktibitate barik, norberaren probetxurako zeozer egiteko posibilitaterik gabe.

Ez didate modulotik ateratzeko baimenarik ematen, ezta gartzelak antolatutako ikastaroetara joateko ere. Ez dute nahi nire kideekin aurkitzea.

Ikustaldiak ere egun ezberdinetan eukitzen ditugu. Honela ez kointziditzez gain, izugarrizko kaltea sortzen die gure senideei. Bere kontura

etorri behar dute, ahal duten moduan.

Funtzionarioen eraso jasaten dugu egunero, usin egiteagatik ere partek. Usin egiten ez baduzu probokatu egiten zaituzte egin dezazun. Probokatu arren egiten ez baduzu eurek asmatu egingo dute. Funtzionarioek euren legea ezartzen dute, edozein arrazoiengatik neurritz gaineko zigorrak aplikatzen dituztelarik.

Espetxe Zaintzarako Epaileak gehiegikeria hauek baimentzen ditu. Funtzionarioek bidea libre dute gu zapaltzeko. Are gehiago modulo honetan. Hemen erregimena gainontzeoketan baino askoz ere gogorragoa da.

Hemengo funtzionario gehienak espedientatu dituzte hona etorri aurretik botereaz baliatu direlako gehiegikeriak burutzeko. Isolamenduan goadira egiten dutenek hainbat sumario dute irekirik presoak jipoitzeagatik.

Hainbeste salaketa direla medio zuzendari berria beldurtu egi zen eta saiatu zen arazoa konpontzen, arrakasta handirik gabe. Epaileak ez du

espetxearen kontrako autorik diktatzen.

Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrean salaketa ugari dago. Hala ere, handik ez da ezer aterako.

Paketeetan ere dena debekutzen digute. Anorakak, plumiferoak eta antzekoak ere debekatu dizkigute negurako arropa aproposarik gabe utziz.

Janaria txarra eta urria da. Elikatu baino kaltetu egiten du. Moduloko ekonomatoan bitaminak jarri behar izan dituzte salgai. Hemen gerra ondokoaren modukoa da hemen pasatzen dugun gosea.

Espetxe hau esperentzia pilotoa da. Komunikabideetan hemen giza eskubideak errespetatzen direla diote. Errealitatea guztiz kontrakoa da. Preso sozialek "hormigoizko infernua" deiten diote.

Hau da dena! Besarkada bana denoi!

Cesar Saenz de Zaitegi • Alde Zaharreko auzokidea Navalcarnero (Madrid)  
**Senideak-ek bidalia**

**TXUSTA**  
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea  
GASTEIZ

**Iratxe Bidaiak**

Gorbea 12 • Tfnoa: 22 00 16 • Fax: 24 84 07 GASTEIZ


**Urtarrila-otsaila**



**Aste bat:** Garraioa + hotela  
Elurretarako ofertak bulegoan bertan GALDETU!

BENIDORM 19.500  
KANARIAS 33.000  
TUNEZ 33.000  
THAILANDIA 79.900  
KANKUN 79.900  
SANTO DOMINGO 79.500  
KUBA 65.900  
KOLONBIA 89.900  
NEW YORK 89.500

# Zerutik lurrari begira



burua ukatzeko gogoia, arriskuan jartzeko gaitasuna, kitto! esateko adorea eta azpikeria eta irutxurra ez onartzeko baloreak krisian daude.

Oso aberasgarria izango litzateke guztiontzat aldi batean gure gastuak dexente murriztea. Horrela hainbat sentsazio berri piztuko lirateke gure barruan eta hobeto ulertuko genituzke gure inguruko hainbat kontu. Hori egingo bagenu zer, somatuko genuke? Behera egingo luke gure bizitze-mailak? Edo, bakarrik, gutxiago edo gutxiagotan erosiko genuke? Kasu horretan, aukera paregabea izango genuke kontsumo eta kontsumismoaren artean dagoen aldea ikusteko.

Kontsumoa iharduera arrunta da eta bere bitartez materialiaz baliatzen gara. Kontsumismoan aldiz, funtzio hori gure gain jartzen da eta materia guk erabili beharrean berak erabiltzen gaitu eta bere menpeko bihurtzen gaitu. Horrela, askotan, biktimak sentitzen gara besteen desioen morroi garelako konturatzen garenean.

Gainera ondo zehaztu behar dugu zer den benetan bizitze-maila hobetzea, ikuspegi materialista alde batera utziz. Agian gutxiago edukita, gehiago begiratuko diogu gure barruko balioei. Horrela, aukera bat emango genioke gure sormenari Erich Fromm-ek "Gaurko gizon-emakumeen izaera" liburuan adierazten duenez ulertuta. Erich Fromm definizioaren arabera, sormenari esker errealitateaz ohartzeko gara eta erantzuna ematen diogu. Badirudi hori sinplea dela, baina ez da horrela. Horretarako, pertsonak oso garbi izan behar du nor den eta norantza bideratu nahi duen bere autoestimua, eguneroko errealitateak eskaintzen dizkion aukera guztiak aprobetxatuz.

Nere ustean, egungo ekonomi krisia, beste edozein krisiaren antzera, oso lotuta dago balio-krisiarekin, hau da, gizakiaren bete-beteko krisiarekin. Gizon-emakumeok ez gara gauza errealitateaz ohartzeko eta erantzuna emateko, ez dugulako gure errealitatea ezagutzen eta ez dakigulako nor garen eta norantza goazen. Ondorioz, ez gara gai aurre egiteko eta ekintza eginkorrek eta azkarrak burutzeko

**URTE BERRI HONEN** hasieran jende askok galdetzen dio bere buruari krisia aurten amaituko den. Eta zeozer esan nahiko nuke horri buruz.

Krisialdi honek sortzen dituen ondorio negatiboak alderatu nahi baditugu zenbait alderdi hartu behar ditugu kontuan egoera hori eraldatzeko eta emankorra egiteko. Aurrera egin nahi duten bizidun guztiek ezinbesteko dituzte krisiak: larrialdietan, alegia, zerbait desagertu eta eraldatzen da bere funtzioak autonomoagoak eta helduagoak izan daitezten. Horrela ez balitz izango, organismo horiek beren partikularitatean murgildurik ez lukete etorkizunik izango.

Esandakoa gizaratean zein pertsonengan aplikatu daiteke. Gizakiak egunetik egunera bere burua aldatzeko eta gizartea hobegotzeko erantzukizuna hartu behar du. Hori lortzeko erein egin behar du, lan eginez eta elkartasunez. Horrela ez bada, hau da, ezpadaukagu eguneroko bizitzan besteen alde eta onean lan egiteko adorerik, zer eskubide daukagu kexu egiteko, gauzak txarto doazela eta hobetu beharrean txarrera doazela esateko?

Nere ustetan, benetako krisia ez da ekonomikoa pertsonala baizik, eta seguru asko, jasaten ari garen arazo sozial eta ekonomikoaren zati handi batek balore-krisian du oinarri. Onestasuna, esfortzua, norbere



**Umeak zaintzen ditugu**

**GOIZEZ**

Beatriz

22 61 18

**ARRATSALDEZ**

Oihana

25 30 35

Imma

24 22 41

Rafa

25 22 68

**GAUEZ**

Esther

27 84 57

Imma

24 22 41

**ASTEBURUETAN**

Olatz

25 61 20

Jose Angel

27 62 41

**Zeuren haurrak zaintzeko prest baldin bazaude, deitu ezazu 26 25 92 telefonora edo idatzi 1691 postakutxara.**

**azkarprint**  
Cercas Bajas, 4  
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu**

**GASTEIZ**

**INPRIMATEGIA**

**Benito**

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14  
**GASTEIZ**

# Gabonak Gasteizen tradizioa eta historia



**B**a al zenekien gure aitona-monek txikitik oilaskoa Gabonetako luxuzko jakitzat hartzen zutela? Edota festa hauek etxetik atera gabe ospatu ohi zituztela eta, ondorioz, kaleak huts-hutsik egoten zirela egun horietan? Mende honetako aurreneko hamarkadetan, orain bezala, jai egun hauek sendikoen gozoan egoteko profitatzen zituzten orduko gasteiztarrek. Garai horretan Olentzeroren entzunik ere ez omen zuten hemen. Gisa horretako hainbat gauza jakingarri adierazi digu Joaquin Jimenez ikerlari gasteiztarrek. Horietariko emankorrenak jarraian dituzu laburbildurik

**JANTZI ETA  
OPARIAK**

Kutxillera, 40  
Tfnoa: 26 07 10  
GASTEIZ



## arcaya

Portal de Villarreal, 22-24  
Tfnoa: 26 06 58  
Portal del Rey, 21  
Tfnoa: 28 08 69

**SOINUA  
IRUDIA  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRAGAILUAK  
OPARIGAIK**



**“Gabonak lehen etxetik atera gabe ospatzen ziren, jai erlijiosoak ziren hut-hutsean”**

Hiria askoz txikiagoa zen egun baino. “Artes y Oficios” izeneko eskolan zuen muga Gasteizek. Ursulinen ikastetxea atzean utzita, bizpahiru etxe zeuden soilik, handik aurrera baratza batzuk baino ez.

**Etxezuloan batez ere**

“Gabonak lehen etxetik atera gabe ospatzen ziren, jai erlijiosoak ziren huts-hutsean”. Egun horietan gasteiztar guztiak El Carmen elizara eta katedral zaharrera joan ohi ziren zintzo-zintzo oilar-meza eta egunsentiko meza, hurrenez hurren, entzutera. Fedea oso hedatua zegoen nola Gasteizen hala Euskal Herri osoan. Erljio ekitaldiek berebiziko sustrai sakona zuten ezarria orduko gizartean. Dena dela, Arabako toki askotan euskal ohitura zaharrak mantentzen ziren bitartean, egungo jaiekin antz handia zuen ekitaldirik ospatzen zen Gasteizen mende hasieratik. Eguberriak hiriko bizitza

soziala eta kulturala bultzatzeko garai egokia ziren eta horrela Principal antzoki zaharra ireki ohi zuten Madrilen arrakastatsuak ziren komedia, zartzueta eta opera lanak antzetzeko. Kotiloiak, bere urrian, aberatsen etxetan eta klub pribatuetan antolatzen ziren eta noski, goi mailako jendeak baino ez zuen hara joaterik.

**Hau menua!**

Ez zen ez oso oparo jaten garai horietan, ez eta gutxiago ere. Orduko platerik gogokoenak honako hauek ziren: odolesteak azekin, bixigua, baratxuri zopa, oilaskoa eta turroia. Gasteiztarron egoera ekonomikoa oso ona ez zenez, turroia etxean bertan egiten zen. “Intxaur txikituak, esnea eta ezitia nahasiz primerako turroia lortzen zuten”. Baina, dudarik gabe, garbantzuak ziren gasteiztarron sukaldeetako errege-erreginak, eguberrietako plater nagusia. Areago, urte osoko jaiegunitako jakitzat jotzen zituzten garbantzuok. Hori dela eta, ez da harrizkoa jaiegunen bezperan jotzen zen kanpaia “La Garbancera” ezizenez ezaguna izatea. Hurrengo egunean mahai gainean garbantzuak egongo zirela adierazten zuen kanpai joaldi bakoitzak. Izan ere, askotxo aldatu dira ohiturak.

**JOAQUIN JIMENEZ** Gasteizko bihotz-bihotzean, Enparantza Berrian, jaio zen. Gure hiriaren inguruko gaiak ikasi eta ikertu ditu 40.eko hamarkadatik. Berrogeita hamar bat urteotan zoko-moko guztiak miatu ditu Gasteizko tradizioa eta historia aztertu eta lau haizetara zabaltzeko, arabar eta euskaldun guztion mesederako. Gasteiz ahotan duela xehetasunez hornituriko ehundaka pasadizu ekarri ohi ditu hizpidera Joaquinek. “Nire haurtzaroan 30.000 lagun besterik ez ginen Gasteizen bizi. Horregatik ez da batere harrigarria guztiok elkar ezagutu izana”.



EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Abuztuaren 15a arte irekita  
Barra goizeko 7etatik aurrera  
Karta betiko eta oraingo platerekin  
Eguneroko Menua: 1000 pzt  
Betiko kazuelatxoak*



**IRUNA  
TABERNA**  
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52  
GASTEIZ



“ **Lehen belenetarako zaletasuna orain baino askoz hedatuago zegoen** ”



beretik atera eta jan egiten zuten. Urte luze batez gordeta egon bazen ere, gozoa omen zegoen ogia, “baina hori bai, pittin bat gogorra”. Baina, “ogi gogorrari hagin zorrotza” zer zen bazekiten nonbait orduko gasteiztarrek. Haien sinismenen arabera, ogi hori txakur amorratu bati botaz gero, gaixotasuna aldendu eta erabat osatzen zen animalia.

**Kalean zehar kantari**

Mende hasieran Gasteizko umezurtz-tegiko hurrek kalejira bat egin ohi zuten gabon kantak abestuz eta jendeak eman ohi zien dirua bilduz. Hiruburuan 20.eko hamarkadan galdu zen ohitura hori Arabako hainbat lekutan mantendu izan da urte luzetan eta afaldu aurretik herrietako gazte eta umeek beren auzokideak zoriontzeko kantuak abestu ohi zituzten etxez etxe. Zorionen truke etxeke andreak ematen zienarekin azkaria egiteko aukera izaten zuten gazteek jaien ondoren.

**Ogiaren usadioa**

Oraintsu arte ogia etxean bertan egiten zen. Astean behin baino ez zen lan horretan ibili behar aste osorako ogia izateko. Eguberri egunerako propio ogi bat egiten zuten garai horretan. Mahai gainean zegoelarik, mahaiko zamau azpian sartzen zen, hurrengo urterako gordez. Jarraian, aurreko urteko ogia leku

**Erre pui erre**

Gasteizko zaharrenek ere ez dute gogoan herri txikietan gorde diren ohitura zahar asko eta asko. Esaterako, sua, Gabonen ezaugarri garrantzitsuenetakoa duela urte gutxi arte izan duguna. Arrisku guztiak aldetzen laguntzen duen indarra da sua, su mitologikoa. Horregatik, herrietan, gazteek hainbat su pizten zuten Urte Zahar gauean. Gero etxez etxe zihoazen “erre pui erre” abestuz. Aditu batzuen arabera, kanta horren sorrera “erre bai erre” esaldian dago. Beste batzuentzat, ordea, “erre ipurdia erre” esamoldean datza zergatia. “Noren ipurdia baina?”, galde dezake baten batek. Urtearena, noski. Bestalde, askok eta askok egutegia erretzen zuten Urte Zahar gauean. Joaquinek argitu digunez, purifikazio errito bat dugu berau.

**Belenak eta beste**

Hainbat hamarkada atzera eginez gero, ohartuko gara lehen belenetarako zaletasuna orain baino askoz hedatuago zegoela. “Etxe guztietan belen bat zegoen”. Gasteiztarrok elizaz eliza ibiltzen omen ziren Gabonetan hemengo eta hango belenak ikusi eta miretsiz. Hori omen zuten denborapasarik gogoenetako bat. “Politena El Carmen elizakoa zen”. Corazonistas, Marianistas, Ursulinas eta San Pedro elizakoa ere ez ei ziren makalak. Joaquin hitzetan, “Gasteizen ez zegoen Olentzeroren ohiturarik; opariak Erregeek ekartzen zituzten urtarrilaren bosteko gauean eta lehioetan ipinitako oinetakoetan utzi”. Orduko opariak oso bestelakoak ziren gaur egunekoan aldean, Joaquin arabera. Oinetakoen gainean karta mordoak, margoak, liburuak eta karpetak ikusten ziren batik bat; jostailuak, berriz, askoz bakanagoak ziren. Horrek oroitzapen zenbait ekarri dizkio gogora: “Anaiari margoak oparitzen bazizkioten, niri armonika bat. Hurrengo urtean alderantziz izaten zen: berarentzat armonika eta niretzat margoak. Eta horrela zenbait urtetan”, esan digu irripartsu gure solasaldiari horrela amaiera emanaz.

Lorea Zurimendi



**GARNICA** 

Gorbea kalea 40  
Tfnoa: 24 18 73

**FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK**



# Geu gara GEU GASTEIZ



**H**ilabete honetan eta urte berriarekin batera, Geu Gasteiz aldizkariak bere 25. alea jarri du kalean. Halere, behin baino gehiagotan esan digute gure aldizkariak zabalkunde handia izan arren (5.000 ale), gure irakurle askok ez dakiela nola sortu zen, zergatik ote den dohainezkoa, nortzuk gabiltzan bere inguruan, eta horrelako beste hainbat gauza. Jakina da, bestalde, Geu Gasteiz aldizkarikook oso kontuan izaten ditugula zuen iradokizunak hilabetean hilabetezko idazgaiak hautatzeko unean. Beraz eta lagun hurkoaz hitzegitea norbere buruaz baino errazagoa dela kontuan izan dezazuela zuei eskatuta, bi urte pasatxo dituen aldizkari honen zokomokoak egurasteko lan nekezari ekingo diogu ondorengo orriotan.

**GEU GASTEIZ** aldizkariak bere 0 alea 1992ko uztailean kaleratu zuen, Bartzelonako Olinpiadak jokatzeko ari ziren garaian. Bertan parte hartu zuten kirolari arabarrak eta orduan atarian ziren Gasteizko jaiak ekarri genituen hizpidera estraineko argitalpen hartan.

Aldizkariaren sorreratik bi urte eta erdi igaro dira eta denbora luze horretan batetik bestera ibili gara GEU aldizkarikook gure idazgailu guztiak besapean eramane ditugula. Hasieran, Gasteizko

Irakasle Eskolan utzi ziguten tokitxo bat aldizkaria bertan mamitzeko. Gero, bolada batean Hegoa talde internazionalistaren bulegotxo bat izan genuen egoitza. Horren ondoren, ikastegi batera joan ginen eta bertan gaude egun. Honera etorri ginenetik urtebete igaro den honetan, mailetan prestatzen hasiak gara berriro gure hurrengo egoitza izango den apaiztegitantz abiatzeko.

Gure aldizkari hau kalean jartzeko ekimena GEL taldearen eskutik etorri

**IRUSTA TABERNA**  
poteo eta pintxoak  
ESPEZIALITATEA:  
Patata tortila • Otartekoak  
Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 23 19 33  
GASTEIZ

**ARTE GALERIA**  
LOURDES UGARABE  
Los Arquillos kalea, 7  
Tfnoa: (945) 146261 • Fax: (945) 143509  
01001 GASTEIZ



zen. Gogoan izan dezagun aipatu taldea oraingo GEU elkartearen plataforma sortzailea izan genuela. Egun, bi urte eta erdi beranduago, GEU elkarteak GEL taldearen lekukoa harturik, babesa ematen dio GEU aldizkariari. Gure hiriaren euskalgintzari aurrerapausu nabarmena ekarri dio euskara hutsezko aldizkari hau kaleratu izanak. Gainera, hori gutxi balitz, GEU Gasteiz izan dugu Euskal Herriko hiriburuetan argia ikusten lehen euskara hutsezko herri aldizkaria. Dударik ez, Arrasate prest, Goiherritarra etabar lehenagokoak ditugu, baina Euskal Herriko zazpi hiriburuak soilik kontuan izanda, Gasteiz dugu aitzindaria euskarazko herri aldizkarigintzan.

## Zertarakoa

Hasiera-hasieratik oso argi izan dugu GEU aldizkariak gure xedea ez zela (eta egun ere ez dela), aldizkariaren bidez, zuei, irakurleoi, ohiko predikuetan hastea, alegia, hizkuntza bat berreskuratzeke egin beharreko pausak zeintzu diren, ez dakit nongo herritan egindako halako ikerketa batek dioenez halako metodologia hobea dela bestelako hura baino hizkuntza normalizatzeko, eta gisa horretako hainbat eta hainbat esaldi borobil. GEU Gasteiz ez dugu, beraz, hemengo edo hango euskarari buruzko

**“ GEL taldearen (egun GEU elkartea) ekimenez sortu zen GEU aldizkaria duela bi urte eta erdi ”**

soziolinguistika-aldizkaria. Askoz ere xumeagoak ziren eta dira gure asmoak: gasteiztarrak gara (jaiotzez, lanbidez edota bokazioz, berdin dio!) eta euskaraz bizi nahi dugu. Horrexegatik, hain zuzen, ezinbesteko irizten genion Gasteizek bere euskarazko aldizkaria izateari. Bestalde,



gure hiriko euskaldunon arteko loturarik ezak GEU aldizkaria bezalako baten premia areagotzen zuen. Hemen euskaraz bizi nahi dugunok elkartuko gintuen lokarri bizi bat izatekotan jaio zen gure aldizkari hau. Lehendik ere bazeuden ARGIA, AIZU, Euskaldunon Egunkaria eta beste hainbat euskarazko argitalpen; Gasteizko gertakariez propio jarduten zuenik ez, ordea. Hutsune hori betetzera etorri zen GEU Gasteiz aldizkaria, bertoko bizitzan neurri bateko edo besteko garrantzia duten albisteak euskaraz emanez. Era berean, aldizkari hau egiten dugunon asmoa izan da hemengo euskaldun guztiek gustora irakurtzeko moduko zerbait sortzea. Beraz eta Gasteizko euskaldungoaren zernolako ei eta berezitasunei men eginez, eratu dugu GEU ale guztietan errepikatu ohi den atal sorta bat.

## GEUgintza

Gure lantaldeak egindako lan eskergari esker, hasieratik egundaino hainbat aldaketa egin da GEU aldizkariaren



mamitze-prozesuan, hala nola, banaketa, maketazioa eta artikuluen kalitatea, gutxi batzu aipatzearen. Gaur egun GEUgintzan urrats hauek eman ohi ditugu:

- Erredakzio batzordearen bilera: eginkizun den alerako ideiak eta proposamenak elkarri jakinarazi eta eztabaidatzeko. Ados jarritakoan, ardurak eta lanak banatzen dira.

★  
I  
Z  
T  
A  
B  
E  
R  
R  
A  
J  
A  
T  
E  
T  
X  
E  
A

BITORIANO  
ZUIA • ARABA  
TEL. 43 00 73

**Cerveceria  
Alemana**

SALTXITXAK  
KAZOLATXOAK  
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

## Inaxio Lopez de Arana: "Urte berri honek onerako aldaketa ugari ekarriko dio GEU aldizkariari"

**HAMAR HILABETE** daramatza Inaxio Lopez de Aranak GEU aldizkariari koordinatzaile. Berak esan digunez, tarte horretan hilabetekariak aldaketa nabarmenak bizi izan ditu: "Azpiegitura, banaketa, maketazioa eta beste hobetzen saiatu gara eta, neurri handi batean, lortu dugula uste dut". Era berean, kazetaritza kalitatea eta euskara maila ez ditu bazter utzi nahi izan bere lantaldeak. Izan ere, "artikulu interesgarriak eta, aldi berean, euskara onez idatzitakoak argitaratu nahi izan ditugu hasieratik ". Bien arteko orekari ezinbesteko deritzo, "ganorazko zerbait egin nahi bada behintzat".



Hasi berri dugun urteari dagokionez, aurrerantzean aldizkariak aldaketa ugari izango duela iragartzera ausartzen da: "Lehenengoa, apaiztegiari utzi diguten gela batean ezarriko dugula bulegoa, handik bolada luze batean ez mugitzeko asmoz; bigarrena, zuzendari edo koordinatzaile eta erredakzio buru berriak hasiko dira lanean hilabete honetan bertan; hirugarrena, kazetaritza egiteko tresneria nola edo hala berriztatuko dugu gure kazetariari lana erreztu eta aldizkariaren kalitatea hobetzeko". Geroan hobekuntza gehiagorik egon daitekeela aurreratu digu Inaxiok baina hori golkoan gordetzea nahiago izan du bada ez bada ere, "kalakaria izatea oso garesti ordaintzen baita".

GEU aldizkaria osatzen duen lantaldearen iharduera uneoro primerakoa izan da, berak adierazi digunez. "Denok berebiziko esfortzua egin dugu eta egiten dihardugu aldizkaria hilabetero kalean ikusi ahal izateko".

Ohi denez, herri ekimen honetan ere egoera ekonomikoa da beraien buru-hausterik handiena. "Aldizkariaren irakurle kopuru altua eta kazetaritza-kalitate nabarmena gorabehera, instituziorik gehientsuenetatik ez zaigu oraindik etorri aurrera egiteko behar-beharrezko dugun laguntza ekonomikoa", kexu da Inaxio.

□ Material guztia (testuak eta argazkiak) inprimategira (GERTU) eramaten dugu aldizkaria bertan sor dezaten.

□ Aldizkariari etiketak ezartzen zaizkie Araba izeneko banaketa enpresan.

□ Araba enpresakoek Correosera eramaten dituzte ale guztiak eta bertatik egiten da banaketa osoa.

Correosen bidez banatzen ez diren aleren batzuk partitzen ditugu Gizarte Etxean, kafetegi batzuetan eta bestelako leku jakin batzuetan.

### Diru iturriak

Aldizkari hau kaleratzeak dakarren gastuari aurre egiteko hiru diru iturri ditugu nagusiki: batetik, publizitatea; bestetik, instituzioetatik datozkigun dirulaguntzak; azkenik, GEU elkarteak eman ohi digun babes ekonomikoa.

Denok dakigunez, merkataritzaren munduari arrotz xamarra zaio euskara. Horregatik eta Gasteizko euskaldunen zernolakoagatik, sarritan ez da uste bezain erraza izaten orrien alboak, ertzak edota orri osoak apaintzen dituzten publizitate-tarteak erosteko prest dagoen bezerorik aurkitzea. Beharbada baten bati gogaikarri izan dakioke artikuluakin zerikusirik ez duten laukitxo txiki-handi horiek bazter guztietan ikustea. Guri, berriz, funtsezkoa zaigu aldizkaria kalean, dohainik eta luzaro ikusi nahi badugu. Oso argi dugu, beraz, publizitaterik gabe ez dagoela GEU aldizkariarik.

Dirulaguntzen atalean, orain arte Eusko Jaurlaritzak baino ez digu sostengu ekonomikorik eman. Halere, urratu beharreko bide guztiak hamaikagarren



“**Publizitatea, dirulaguntzak eta GEU elkarteak dituzten aldizkariak finantziabide**”

□ Kazetariak artikuluak eman eta ordenagailuratu dituzte.

□ Hizkuntz egokitzaileak beharrezko zuzenketak egiten ditu.

□ Maketatzaileak lehengaia jaso, aldizkaria diseinatu eta maketatzen du.

□ Argazkiak bildu.

**axular**

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



**MIKO**

izozkiak

**Arabarrak eta gazteak dira GEU aldizkariako kazetariak. Arabako euskal kazetaritza sustatzen ari gara**

aldiz urratuko ditugu gure aldizkariari bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko

Iragarkiak iragarki eta dirulaguntzak dirulaguntza, ezin da esan GEU aldizkaria egoera ekonomiko onean dagoenik. Oraindik ere oso hobetzekoak ditugu aldizkariaren inguruan modu batean edo bestean dabiltzan hogeita zazpi pertsonen lan baldintzak, horietariko asko eta asko bere borondatez eta ordainez ezer eskatu gabe ari baita gurean.

**Arabako euskal kazetaritza sustatuz**

Odon de Apraiz eta Umandi izan genituen euskal kazetaritzaren aitzindariak Araban. Eurek hasitako bideari eutsi nahi dio GEU aldizkariak kazetaritza euskaraz eginez. Bestalde, Gasteizko eta Arabako euskal kazetarien aldeko apostua egin dugu aldizkarian, hemengo kazetaritza eta kazetariak bultzatu beharrekoak direlakoan. Hemen beste inon bezain kalitate oneko (edo txarreko) kazetaritza egin daiteke eta hori gogoan izanik abiatu ginen



**Mari Karmen Garmendia: "Bai suertea zuena GEU aldizkaria irakurtzeko aukera duzuelako"**



**GEU ALDIZKARIAREN** entzunik Eusko Jaurlaritzaraino iritsi ote zen jakin nahirik haruntz abiatu gara. Bertan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiko arduraduna den Mari Karmen Garmendiak hartu gaitu eta berarekin hitzegiteko parada izan dugu. Zertaz mintzo? Herri aldizkariez, jakina. Horra hor, solasaldi labur horretan jasotakoetarik emankorrena.

**HERRI ALDIZKARIK IRAKURTZEN AL DUZU?**

Mari Karmen Garmendia: Bai horixe! Argitaratzen direnetatik gehientxoena iristen dira nere eskuetara. Garai batetik hona asko ugaldtu dira eta orain aukera handia dago.

**ZER DERITZOKU GEU ALDIZKARIARI?**

Egitasmo bikaina da. Irakurterreza eta Gasteizerako egokia.

**ZER FUNTZIO BETE BEHARKO LUKE GEU ALDIZKARIAK GASTEIZEN?**

Bertako berri euskaraz ematea eta Gasteizko euskaldunen arteko sarea egiten laguntzea. Hori, noski, euskararen erabilerarekin guztiz lotuta dago.

**ZER ESANGO ZENIEKE ALDIZKARIKO LANGILEI ETA IRAKURLEEI?**

Egunero, tipi-tapa, egiten dela bidea. GEU-ko langileei: eskerrik asko, zorionak eta geroz eta aldizkari hobea egiten saiatu. Irakurleei: A ze suertea, GEU irakurtzeko aukera izatea! Eta, irakurle bakoitzak beste irakurle bat gehiago irabaz dezala ale bakoitzeko.

**BA AL DAGO HARREMANIK HERRI ALDIZKARI ETA HIZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN ARTEAN?**

Bai, ez haundirik halere, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari dagokion ardura delako batipat.

**HARREMAN HORI HOBETZERIK BA AL DAGO? NOLA?**

Bitzita honetan ia guztia hobetu dezakegu. Baita hori ere. Urte berri, bizi berri, esaera zaharrak dioen bezala. □

restaurante • jantoki

**DOS HERMANOS**

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano

madre vedruna, 10

☎ 13 29 34  
13 44 46

01008 gasteiz

**kalitaterik onena !**



**PUBLIZITATEA** dugu GEU aldizkariaren diru iturririk nagusia. Horri esker kaleratu ahal izaten dugu hilabetero eskuartearen duzun aldizkari hau. Baina, zein izaten da dendari eta merkatarien motibazioa gure aldizkari publikitate-tarteak erosterakoan? Bezero euskaldun gehiago al dute gure aldizkaria laguntzen hasi zirenetik? Hori guztia jakiteko gure aldizkariaren publikitate-erosle guztiei galdetu beharko litzaieke. Gutxiagorekin konformatu beharko, ordea, horretarako aldizkari osoa beharko baikenuke, bestela. Adibide pare bat emateari aski iritzita, horra hor GEU aldizkaria lagun duten bi dendari edo merkatariarekin izandako elkarrizketak.

# Dendaz denda Geu Gasteizen eskutik



**ALBENIZ**  
MOBILIARIOA

**BEHARREZKOA AL DA, ZUEN USTEZ, GEU GASTEIZ ALDIZKARIA?**

Ondo dago. Zenbait aldizkari kaxkar plazaratu da azken urteotan hemen eta bazen ordua dexente landua den baten bat egotekoa. Gainera, oso bertakoak ditugun gaiak azaltzen dira bertan eta jendea ere oso ezaguna da gure artean, bai jende famatua, bai kalekoa.

**NOIZ ERABAKI ZENUTEN GURE ALDIZKARIAN PUBLIZITATE-TARTEA EROSTEA?**

:Lagun asko ditugu eta horietariko batek esan zigun aldizkari euskaldun bat argitaratu berria zela. Orduan erabaki nuen horri laguntza ematea.

**EUSKALDUN GEHIAGORIK ETORTZEN AL DA ORDUTIK?**

Oso zaila da hori jakitea. Guk aurretik ere bagenituen bezero euskaldun asko. Batez ere, bikote gazteek euskaraz egiten dute euskaraz. Eusko Jaurlaritzako bulego batzu daude gertu eta hortik funtzionario euskaldun asko ibiltzen da.

*Iratxe Bidaiak*

**ZER DERITZOZUE GEU GASTEIZ ALDIZKARIARI?**

Ondo dago Gasteiz bezalako hiri batean euskarazko aldizkari bat egotea. Gainera, bertako jendeak sortu eta egindako aldizkaria da. Pena da, halere, jende gehiegik ez ezagutzea.

**ZER BULTZATU ZAITUZTE BERTAN PUBLIZITATEA EZARTZERA?**

Normalean kontuan hartzen ez den merkatu euskaldun bat dago Gasteizen. Guk merkatu hori bultzatu nahi izan dugu euskara sustatzeko.

**BA AL DA EUSKALDUNIK ZUEN BEZEROEN ARTEAN?**

Egia esanda, oso jende gutxi egiten digu euskaraz. Ume txikiak dituzten gazte asko euskaraz mintzatzeko baina beraien artean soilik. Guri normalean gaztelera egiten digute.

**ARAZORIK IZAN AL DUZUE KANPOKO KARTELA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ EDUKITZEAGATIK?**

Ez, noski. Merkatu bi daude, euskalduna eta erdalduna. Biak landu behar dira. Halere, material gehienak erderaz jarri beharrean gaude, jendeak uler ditzan. Baina arazorik ez dugu izan. Izan ere, Euskal Herrian bizi gara, ezta?



## GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

**ALDE ZAHARRA**  
S. Fco Xabier Kantoia  
Tfnoa: 28 33 05  
Poteo eta giro ona

**ERDIALDEA**  
Ramiro Maeztu 6  
23 31 92  
Eguneko menua

duela bi urte eta erdi komunikabideen munduan barrena. Gure aldizkariko kazetarien gutxi gorabeherako soslaiak hauxe da: arabarra, oso gaztea eta kazetaritza ikasketak amaitu berriak edo amaitzekotan dituenak. Jakin dugunez, ezaugarri horiek (ikasketei buruzkoa salbu) bat datoz gure irakurlerik gehientsuenen bereizgarriekin.

Aipatu bezala, hogeita zazpi lagunek osatzen dugu GEU aldizkaria mamitzen duen lantaldea. Gure artean banatzen dira aldizkariak sortzen dituen eginkizun guztiak: artikuluak, argazkiak, maketazioa, marrazkiak, hizkuntz egokitzape-nak, kudeaketa lanak, etiketaia eta abar.

### Denon aldizkaria

Gasteizko euskaldunen arteko lokarri bat eratzeko tresna izateko jaio zen GEU aldizkaria. Egun ere pentsamolde horrek hezurramitzen du gure iharduera eta aurrerantzean ez da aldatuko, dudarik ez. Gasteizko euskaldunen arteko harremana hobetze aldera, zuen proposamen, ohar, gutun eta iragarki guztiek dute lekua gure hilabetekari honetan zuena ere baita GEU aldizkaria. Guztiz irekia dugu gure aldizkaria, edozein gasteiztarrek baitu bertan idazteko edota lan egiteko aukera.

Bestalde, aldizkariko orriotan gure hiriko bizitzan sona nabarmena duten hainbat gasteiztar ikusi ahal izan ditugu



## ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



### EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lanteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jartzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.

6 LENTIXKETAKO  
KUTXATILA:  
BAKARRIK 6.000 PTA.



**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
GASTEIZ

kolaboratzen: Enrike Knörr, Miren Sanchez Erauskin, Josean Kerejeta, Rosa Letamendia, Iñaki Landa, Begoña Muruaga eta beste.

## Zabalkundea

Hilabetekariak 5.000 aleko tirada du. Horiatariko gehienak Gasteizen bertan banatzen dira; beste batzuek, ordea, Euskal Herriko hainbat bazter eta mundu zabaleko euskal etxeren batzu (Australia, Nevada etabar) dituzte jomuga.

GEU aldizkariko irakurleen kopurua bikoiztu da bi urte eta erdi hauetan egin dugun ibilaldian eta hilabetez hilabete gehituz doa harpidedunen kopurua. Horrela jarraitzekotan, tirada handitu behar izango dugu, dudarik gabe. □



# GEU elkarteak, G

**GEU GASTEIZ** aldizkariak beti izan du aldean, edozertan laguntzeko gertu une-oro, bere altzoan hazi eta hezi baita: GEU elkarteak dugu, jakina. Gasteizko euskararen egoera hobetu nahian sorturik, berehala ikusi zuen euskara hutsezko aldizkari bat eratzea horretarako ezinbestekoa zela. Horrela sortu zen esku artean duzun GEU aldizkaria. Geroztik bi urte eta erdi igaro diren honetan, GEU elkarteak gobernatzen duen bere Batzarre Eragilearekin mintzatu gara, besteak beste, bere seme edo alaba den aldizkari honetaz iritzia eskatzeko.

## NOIZ SORTU ZEN GEU ELKARTEA?

GEU, berez, 1993. urteko apirilaren 2an egindako Batzarre Eratzailean sortu genuen euskaltzale batzuek. Halere, 1992tik bagenbiltzan GEU elkarteak izango zenari buruzko ideiak eta asmoak plazaratzen horretarako eratuta genuen "GEROA ELKARREKIN LANTZEN" (GEL) izeneko lantaldearen bitartez. GEL lantaldeak batzarre horretan amaitu zuen bere lana eta GEU elkarteari eman zion bide.

## ZERGATIK SORTU ZEN?

Euskaldunak garen aldetik, Gasteizen euskaraz bizi nahi genuelako (eta dugulako) ekin genion GEU sortzeari. Izan ere, datu estatistikoen arabera gero eta jende gehiagok dakigu euskaraz gure hirian, baina badakigunok murriztuta ikusten ditugu hizkuntza erabiltzeko aukerak, sakabanatuta eta askotan elkarren berri izan gabe bizi garelako. Hori konpondu behar zen.

## ZEIN HELBURUREKIN?

Azkenengo datuen arabera, Gasteizko bizilagunen %72ak gasteleeraz daki



soilik. Euskaraz dakigunok, berriz, %8 gara egun eta %20 inguru euskaldunte prozesuan da edo ia euskalduna dugu. Hori dela eta, askotan esan da euskara gutxi erabiltzen dela biztanle gehienak erdaldun hutsak direlako. Eta arrazoi hori ez da zuzena erabat, euskaraz dakigunok %8 izanda ere, kalean gure hizkuntzaren erabilpena %2,9ra iristen baita soilik. Hortaz, euskaraz bititzeak hizkuntza egunero eta edozein tokitan normaltasun osoz erabiltzea esan nahi duenez, guztion artean 2,9ko erabilpen hori dakigunon kopuru horretara (%8ra) poliki-poliki jasotzean datza GEU elkartearen helburua. Horretarako, Gasteizko euskaldunok elkarrenganatzea ezinbestekoa da, hizkuntza erabiltzeko aukerak areagotzeaz gain, gizarteari eragingo dion indar soziala gorpuztu dezagun.



**HEGOALDE**  
euskaltegia

**florida kalea 58,  
behea  
tfnoa 28 41 96  
01005 GASTEIZ**



# EU aldizkariaren aita/ama



## NORTZUK HARTZEN DUTE PARTE?

Euskalgintzan iharduteko gogoz dabil-tzan pentsaera desberdinetako euskal-dunok. Partaideen pluraltasuna oinarritzakoa da, euskarari dimentsio soziala eman nahi badiogu benetan.

## ZEIN DA ELKARTEAK EGITEN DUEN LANA?

Lehen aipatu dugun indar sozial hori gorpuztera bideratzen ari gara gure lana, instituzioen eta beste euskal taldeen laguntzarekin batera. Ildo horretatik, sentsibilizazio arloan hainbat ekimen burutu ditugu eskola-eredu euskaldunak (B eta D) irakaskuntza oinarritzakoa eta ertainean bultzatzeko asmoz. Ikerketa alorrean GEU-ko bazkidea dugun Santi Txintxurretaren "Euskararen errealitatea Gasteizen auzo auzo" izeneko azterlana plazaratuko dugu aurki Udalaren babespean. Erabilpena sustatzeko sailean, berriz, umeen elkartrukaketak antolatu genituen udan Gipuzkoa eta Nafarroako ikastola-eskolen bitartez. Euskarazko kultur ihardueran, Udaletxeko Kultura Sailarekin elkarlanerako bidea urratuta dugu Nazioarteko Antzerki Jaialdia hasi zenetik hona.

## ZER USTE DUZUE EGIN BEHAR DELA EUSKARA BULTZATZEKO?

Bi zerrailatako atea zabaldu beharra da-

go. Alde batetik, norberak egunero euskararekin duen konpromezua indartzeko giltza sartu behar da. Horretarako, GEU Gasteiz aldizkariaren abenduko zenbakian Roberto Oñederrak idatzitako artikulua bikaina irakurtzea gomendatzen dizuegu. Bestalde, gizartearen euskararen garra suspertuko duen giltzari eragin behar zaio. Hori lortzeko ezinbestekoa da, GEU-ren ustez, instituzioen eta herri ekimenen arteko lankidetzak finkoa.

## ZENBAT BAZKIDE ZARETE?

320 bazkide. Halere bazkide kopurua gehitzeko kanpaina bat aurrera eramango dugu aurten, iharduera hobetzeko diru-iturriak handitu beharra dagoelako eta pluraltasuna bilatu nahian gizarte-sektore ezberdinetako bazkideak izan nahi ditugulako. Beraz, badakizue... zeuek ere izan zaitezke, irakurleok, GEU elkarte-ko bazkide 262592 telefonora deituta.

## 1995. URTE HONETARAKO ZEIN ASMO DUZUE?

Euskalgintzan ari diren talde guztiek urtero antolatzen dituzten ekintza fin-koenen datak lortu eta "euskalgintza-egutegi" moduko bat osatu nahian gabilta, denon artean informazioa hobeto trukatzuz, urtero egin ohi diren ekitaldiak bultzatu eta ahal den euskaldun gehiagorengana zabaltzeko. Bestalde, euskalgintzan dihardugun taldeek jasotzen dugun idatzizko komunikazioa euskaraz izateko hitzarmen bat proposatu nahi diogu itun hori sinatzeko prest egon daitekeen entitate euskaldun orori. Udaletxeko prentsa bulegoaren, aldiz, beste akordio bat sinatzekotan

gara, GEU Gasteiz aldizkariaren bitartez, Udalak kaleratzen duen Udal Gazetan euskarazko albiste eta artikulua agertzeko. Azpiegitura mailan, Diputazioak emandako lokal berriak estreinatuko ditugu, orain arte ez baitugu egoitza finkorik izan eta horrek izugarri zaildu digu eguneroko jardunbidea.

## ZEIN DA ZUEN LEKUA GEU GASTEIZ ALDIZKARIAN?

GEU elkarteak GEU Gasteizen argitaratzaile ofiziala izateaz gain, babesa eskaintzen dio bai ekonomikoki -GEU elkartearen bazkideetatik jasotako diru-kopuruaren zati bat aldizkarirako baita-, bai azpiegiturari -ordenagailuak, lokala, etabar-dagokionez ere.

## ZER USTE DUZUE GEU GASTEIZ ALDIZKARIARI BURUZ?

Zorionak eman behar dizkiegu aldizkaria hilero prestatu, argitaratu eta banatzen ari den euskaltzale guztiei, eurei esker bi urte eta erdi bete baititu kalean, edo etxeetan hobeto esanda. Denbora luze horretan zailtasunak zailtasun -lokalak ibiltzea, baliabide tekniko urriekin lan egitea-, hilero Gasteizko euskaldunoi gure hiriko informazioa eman digu eta gu guztion erreferentziagune bihurtu da dagoeneko. Beraz, hasieran ezarritako helburuak bete direla esan genezake GEU elkartetik. Halere, GEU Gasteizen bi urte eta erdi bete diren honetarako aldizkaria berregituratzearen beharra ikusi dugu eta horri ekingo diogu gaurtik aurrera. URTE BERRI ON GEU GASTEIZI ETA BERE IRAKURLE GUZTIEI! □



# Arantxa Ibarondo

**Txoko honetan aurkitzen dituzuen pertsonaiak bi gauza dute amankomun: gasteizarrak eta euskaldunak dira. Zu zeu izan zaitezte hurrengo!**



## ZEIN DA ZURE BIZIORIK HANDIENA?

Jo, eske..., ah bai!, mota guztietako aparatuak erostea, asko gustatzen zait.

## ZEIN DA ZURE BERTUTEA?

Lasaia naizela... (baina elkarriketa guztian ez da geldirik egon)

## ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Orain dibertsioa eta dirua.

## ZER ESKATZEN DIOZU ZUK BIZITZARI

**JUDIMENDI** auzokoa izan arren ez du bertako giroa bizi. Leo da berari axola ez zaion arren. Hauxe dugu Arantxa Ibarondo. Kirola eta argazkilaritza ditu afizio. Areto-futboleant aritzen da Zuriñe taldean, baita Arabako Selektzioan ere. Kirola praktikatu ezezik ikusi ere egiten du; asko gainera: "Neu Campen izan nintzen Erreala eta Bartzelonaren arteko partidu batean, izaugarria izan zen, eta zelaia,... joe!!! hortxe bai jokatuko nuke gustora!" Gasteizen jaio zen 1968ko abuztuaren 13an. Ama, aita eta bere bi nebekin bizi da; Mikel lehena eta Imanol hirugarrena. Olabide Ikastolan ikasi zuen txikitan. Ondoren Komertzio Eskolan ibili zen. Gaurregun gasolindegi bateko kontuak eramaten dabil Arantxa. "Gimnasia deportiva"-tik Areto-futbolera... Zein izango ote da bere hirugarren kirola?


**IÑAKI JAUREGIALTZO-ren  
KERAMIKA LANAK**



**CORRERIA, 62  
Tfnoc: 26 69 04  
GASTEIZ**



**ALBENIZ**  
MOBILIARIOA



**Carros Bajos, 2  
Telefonoa eta Faxa 28 74 82  
01008 GASTEIZ**

Ba... osasuna... Maitasunik ez? Bai, bai, baita ere.

**ZEIN DA ZURE MAITASUN EGOERA ORAINTXE?**

... ez dago... (eta farra batzuk)

**GASTEIZ, VITORIA, VITORIA-GASTEIZ ALA GASTEIZ-VITORIA?**  
Vitoria-Gasteiz (ziurtasun osoz)

**JENIORIK BADUZU?**  
Batzuetan, baina erraz bizi liteke nirekin.

**MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?**  
Jendearen konpromezu eza gauza askotarako. Politika adibidez. Jendeari dibertitzea interesatzen zaio, baina... besteen arazoak zer?

**EZAGUTZEN AL DUZU GEU ELKARTEA? ZER IRUDITZEN ZAIZU?**  
Ezagutzen dut baina ez dut gehiegi jarraitzen.

**TELEBISTARIK BAI?**  
Bai. Programaren bat? Kirolak, jakina. "Kirolez kirol" adibidez.

**OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?**  
Zarautzen, ondo pasatzeko eta lasai egoteko. Oporrak opor.

**ETXEKO LANAK NORK EGITEN DITU ZUENEAN?**  
Amak

**ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?**  
Zinismoak, gezurrak.... ez dakit.

**JAKI GOXO BAT?**  
Txokolatea, edozein eratan; egosia, tabletan,... ez nekien afrodisiakoak zenik.

**FILMEREN BAT?**  
Ba... momentu honetan "El silencio de los corderos", agian. Ez dakit. Aktore izenik ere ez. Futbolariak bai ordea. Betikoak.

**TXIKITAKO OROITZAPEN EDERREN BAT?**  
Ez dakit... horrela bat esateko... Orokorrean oso ondo pasatu dut txikitzen.

**GORPUTZ ATALIK POLITENA?**  
Puff! ezer (farreak) Ezer ez eta dena.

**AMETSIK, ILUSORIK?**


Areto-futbolean olinpiada batean egotea, adibidez. Inoiz beteko ez den ametsa. Ez dakit emakumezkoen areto-futbola olinpikoa den ere.

**GIZARTE ARLOAN ZER ALDATUKO ZENUKE?**  
Joe!! oso zaila da galdera hori; ez dakit, gauza asko. Behin gauza batekin hasita, dena aldatuko nuke. Neu heziketatik hasiko nintzateke.

**DENBORA ASKO IZANGO BAZENU, ZER EGINGO ZENUKE, NORA JOANGO ZINATEKE?**  
Ez dakit, dirua edukiz gero, argazkien munduan sartuko nintzateke, asko gustatzen zait eta.

**LIBURU BAT?**  
Ez dut irakurtzen.

**ZEIN DA ZURE MOTORRA, BIZITZEKO GOGOA EMATEN DIZUNA?**  
Gauza asko: kirola, lagunak, familia,...



# XXI. MENDEAN EUSKALDUN



## Zure esku dago !

- 2, 3 eta 5 ordutako ikastaroak
- Urrats guztiak, EGA, MIntza eta Sakontze
- IKAS-TXIP (euskara ordenagailuz)
- Negu Barnetegia Lesakan

GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22) PINTO: Pintoreria 74 (28 79 80)  
ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)



**MATRIKULAZIOA:** urtarriak 23 • otsailak 10

# Oihane Perea, zirikatzaile matxinatua



“ **Bertsolaritza, dudarik gabe, gizonezkoen neurrira dago egokiturik** ”

**HAMAZAZPI URTEAK** estreinatu berri dituen neska hau “izar” nagusi-enetako bihurtu da Arabako bertsolaritzan duela pare bat urtetik hona. Hala ere, ez dirudi gasteiztarrek haize gehiegirik duenik buruan: “Neure burua frogan jartzeko parte hartu nuen Araba-Bizkaietako txapelketan eta bertan ohartu nintzen oraindik asko dudala ikasteko”.

“Neure burua frogan jartzeko joan naiz Araba-Bizkaietako txapelketara. Arabatik kanpo nolako maila daukadan ikusi behar nuen”. Bertan zerbait ikasteko asmoz eman zuen izena Oihanek. Ez zuen bere bizitzako saiorik borobilena burutu baina bai bere helburua bete behintzat: “Askok ikasi behar dudala konturatu naiz”.

Oihanerentzat Araba-Bizkaietako lehen txapelketa izan den oraintsuko hau luzaro gogoratuko dute bertsozaleek. Gazteen boom-a hobekien isladatu duen txapelketa izan da hau seguruenik. “Egun jadanik bi bertso mundu daudela esan daiteke: gazteena eta zaharrena; parekoak eta oso ezberdinak elkarren artean”, azaldu du bertsolari gazteak. Bere ustez, “gazteena zuzenagoa da, zaharrena lirikoagoa”.

Oihanek ez ezik, beste neska gazte batek gogoan izango du 1994ko txapelketa hori bere bizitza osoan. Iratxe

**E**makumea eta arabarra. Bertsolaria ez izateko txartel guztiak ditu Oihane Perea baina kikildu barik aurrera egiten ari da emakume eta arabar izate hori ikurtzat hartuta gainera.

deportivos

**AZOKA**

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04  
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05  
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

zure euskal  
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

**berrikoia**

Ibarrak historia egin zuen Arriagan, Bizkaiko txapelketako final baterako sailkatu den lehenengo emakumea izan baita bera. "Arabian eta Nafarroan egon gara neskak. Orain Gipuzkoa falta da baina hurrengoan lortuko dugu", esan digu Oihane Perea dudak izpirik gabe.

Hala ere, emakumeena borroka luzeagoa izango dela badaki gasteiztar gazteak. "Bertso eskolako hasierako mailan neska gazte gehiago egoten da mutilak baino, baina gero, gehienak bidean galtzen dira. Eta ez dakit zergatik". Emakume bertsolariei buruz asko hitz egiten den arren, "Bertsolaritza gizonezkoen neurri dago egokiturik. Hori argi ikusten da. Diskriminaziorik? Bai, batzutan nahi gabe ere. Diskriminazio positiboa deitzen den hori egiten dizute bertsolari batzuek. Asmo ona da baina..."

### Futbola bezalakoa

Ondorio garbiak atera ditu Oihane txapelketa honetatik, "konturatu naiz teknika hobetu behar dudala. Hau futbola bezalakoa da eta teknikan saiatu behar dut gehiago. Ideiak botatzen ondo moldatzen naiz baina gero ez dut jakiten ideia horiekin bertso borobil-borobila egiten". Sufritu egiten du Oihane txapelketetan. "Nik esan ohi dut bertsolaria baino bertsozalea naitzela. Besteek gaizki pasatzen dutela ikustea gogoko dut baina niri tokatzen zaidanean..." Bertsolari gazteen artean nahikoa hedaturik dagoen pentsamoldea da hori. "Ez zaigu gustatzen sortzen den lehia giro hori; kinielak eta guzti egin izan dira azken txapelketetan!". Dena den, ez da uste bezain erraza. Txapelketan postu onik lortu ezean ez dago plazarik egiterik eta plazarik egin gabe ezin da txapelketarik irabazi. Konponbide errazik ez duen gorpil itxia da."

Taulatu gainean kantatuz lortzen den esperientzia hori faltan somatu zuen Oihane txapelketako saioetan. "Nerbio-en ondorioz zerbait izugarria gertatu zitzaidan. Saioaren egunean Balentin Enbeita zenaren urtemuga betetzen zen eta berari buruzko gairen bat jarriko zutela sartu

zitzaidan buruan. Baina Barandiaran jarri zidaten. Belarriek entzun nahi dutena entzuten dute batzutan eta Enbeitari kantatuz hasi nuen bertsoa nik. Horretaz ohartzean, gaixotu beharrez jarri nintzen, gaixorik bene-tan!", azaldu du Oihane eta, egia esan, estualdia pasatu zaiola argi ikusten da: "Bertsolari bati kantatzen hasi nintzai-enez, batzuek uste izan zuten sinbolikoki ari nintzela", esan du gasteiztarrek algara batean.

### Zazpigarren alaba

Hitz-jario aparta du Oihane eta prestaturik geneuzkan galderetarik beste gai batzuetara pasatzea samurra zaio oso. Arabako bertsolariak exotiko xamarrak izaten jarraitzen dutela aitortu du



**“Saioak egiteko orduan izen handiko bertsolariak ekartzen dira eta bertakoak baztertu”**

gazteak. "Beno, ez da bertsolaritzan bakarrik ikusten den gauza. Araba nahiko desprestigiatuta dago arlo guztietan. Askok dira Castilla Ubidean hasten dela

oraindik pentsatzen dutenak!", kexu da haserre. Horren inguruan anekdota bat du Oihane. Behin gazte-txoen txapelketa batean parte hartu eta gero Imanol Lazkano hurbildu zitzaion eta "ondo egiten duzu euskeraz... arabarra izateko" esan zion. "Arabarra izateko! Arabarrona kriston borroka da baina guk bakarrik ez dugu ezer lortuko; pena da hemendik kanpo kontzientziarik ez izatea. Horrelako argumentuekin jokoa egiten ari zaie euskara arabarra ez dela diotenei".

Bertsolaritzan ere horren eragina begi bistakoa da, "hemengo bertsolari batek oso nekeza du Arabatik kanpoko deiak jasotzea bertoko txapelduna izanda ere. Bestalde, ez dakit arabarrok hemengo bertsolaritza gehiegi bultzatzen ote dugun". Berak esan digunez, saioak egiteko orduan izen handiko bertsolariak ekartzen dira eta bitartean bertakoak baztertu. Hala ere, Arabako bertsolaritza aurrera ari dela argi du Oihane. "Bai, bai. Bestela, alperrikako lana egiten arituko ginatke".

Sekretu bat amaitzeko. Araba-Bizkaietako bertsolari txapelketaren finalaren bezperan egin genuen elkarrizketa hau eta, bide batez, pronostiko bat eskatu geni-on. "Aurten ere Jon Enbeitak bereganatuko du txapela" izan ziren bere hitzak. Predikzio horretan huts egin arren, pozik egongo da seguru asko Oihane Perea. Gazteen matxinadaren beste aurrerapausu bat izan baitzen Arriaga antzokikoa.

Leire Lopez de Aberasturi

# hAurRAk Benetako

# jolas

## ametsa Gabonetan

**m**aritzell deitzen naiz, 13 urte ditut eta nire gurasoak 2 urtekin abandonaturik utzi ninduten munduan -etxe baten sarreran utzi nindutela esan nahi dut-.

Orain "guraso gabeko umeen etxean" bizi naiz. Bost urtekin familia batek hartu ninduen, eta gero ume bat euki zutenean, "guraso gabeko umeen etxera" bidali ninduten berriro ere. Sei urte daramatzat leku honetan. Gasteizen bizi naiz.

Eskolara joaten naiz, ez ditut nota onak ateratzen, baina dena gaitzen dut. Marraztea asko gustatzen zait. Laister gabonak izango dira, Olentzerori eskatzen diodana famili on batek hartzea da. Baina seguraski ez da posible izango.

Amaiak, gure pisuko arduraduna, bikote batek neska bat euki nahi dutela esan digu, baina ezin dutenez, 12-13 urteko neska bat aukeratuko dute. Amaia oso ona da gurekin eta gainera gaur notizia on bat ekarri digu. Denok nahi dugu bikote horrek gu aukeratzea baina bakarrik neska bat aukeratuko dute. Ni izatea nahiko nuke.

Abenduan gaude, bi aste falta dira Olentzero eguna izateko eta aste bat bikoteak neska bat aukeratzeko. Nor izango ote da aukeratua? Denak hori galdetzen dugu.

Bihar astearte goizean, bikotea



dator gurekin hitzegitera. Astearte da, denak urduri gaude, baina hemen dago bikotea. Dotore jantzita daude, eta gainera bikote ederra egiten dute. Nire txanda da beraiekin hitz egiteko. Ordu bat egon ginen hitzegiten. Datorren igandean esango digute nor aukeratu duten.

Egunak igarotzen doaz, negua da eta hotz handia egiten du Gasteizen.

Igandea da, neska denak ilaran gaude, neskaren izena bapatean esango dute:

- Meritzell Jayo!, entzuten da.

- Ni naiz, aupa! - esan nuen-.

Ni pozik nengoen baina beste aldetik pixka bat triste, han lagun asko nituen eta oso onak gainera,

baina joan behar nintzen.

Maletak egin behar nituen, ez nuen gauza asko gordetzeko, horregatik arin egin nituen. Denak agurtu nituen eta denei idatziko niela esan nien.

Kotxe polit batean joan nintzen. Nire ama berria Maite deitzen zen eta aita Kepa. Etxera ailegatu ginen, seigarren pisura igo behar genuen -igogailuan noski-.

-Iritsi gara -esan zidan Maitek-

Keparen ama han zegoen ere, beraiekin bizi zen. Bi musu eman zizkidan eta nire gela erakutsi zidan.

Bai polita zela!, panpin asko zituen.

Egunak igarotzen joan ziren. Nire guraso berriak eta ni oso pozik geunden.

Olentzeroaren egunerako opari asko erosi zizkidaten. Bihar Olentzero eguna izango da, ezin nuen lorik egin, baina azkenean lokartu nintzen. Goiza ailegatu zen, eta egongelan nire oinetakoen ondoan opari pila bat zeuden.

Denak niretzat: erropak, jolasak, dirua...

Nire ametsa bete egin zen.

Egun horretatik bi urte pasa dira eta oso pozik bizi naiz, denak oso onak dira nirekin.

**Naiara Guillen**

**Abendaño ikastolako 7. A**

*ditare*

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

**AMILAMIA**  
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17  
ffnoa: 27 40 09  
GASTEIZ

# ean



**Amak bi ditu  
aitak ere bai  
semeak bat ere ez  
Zer daaa?**

**Zer ote da, zer?  
Uda hasieran dagoena  
eta negu bukaeran ere bai**

«a» eta «u» letrak



# urte berri on

## Olentzeroa



**BEHIN BATEAN** gabonak ospatzen hasi ziren herri txiki batean.

Herriaren kanpokaldean bizi zen ume aberats bat. Eta herri berberan ume behartsu bat bizi zen ere. Ume aberatsak olentzeroari gauza asko eskatzen zion, eta ume behartsuak ez zion ezer eskatu Olentzeroari.

Olentzero eguna heldu zen, eta ume aberatsa oso pozik zegoen.

Olentzeroa nahastu egin zen eta dena aldrebes egin zuen, mutiko behartsuari opari guztiak eman zizkion eta aberatsari bat ere ez.

Hurrengo goizean mutiko aberatsa opariak irikitzera joan zen eta opariak ez zeudela ikustean negarrez hasi zen. Olentzeroak hori ikustean mutikoarengana joan zen eta esan zion hori egin zuela bere berekoi-egia zelako.

Handik aurrera mutiko aberatsa eta mutiko behartsua lagun onak egin ziren eta gauza guztiak banatzen zituzten.

Kondairak esaten duenez Olentzeroak eskutitz bat utzi zien mutikoei esanez bera ez zela nahastu, ume behartsuari lagundu nahi ziolako egin zuela jostailu trukea.

**Oihana Elizegi  
Abendaño ikastolako 4. A**

**UDABERRIA**  
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12  
**GASTEIZ**

**Uetzal**

*jai zoriotsuak!* *HegoAmerikako jantziarik ederrenak*

**PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoiaeren ertzean Tfnoa: 25 03 52**


**EGUZKILORE**

Kutxileria, 44  
Tel. 28 68 40  
**GASTEIZ**

JANTZI, OSAGARRI  
ETA OPARIK



# Perasovic: Europako jaurtikitzailerik onena Gasteizen



“**Kroatiako selekzioarekin jokatu izana du harrotasunik handiena**”

**PERASEK** Zurbanoko harmailetan egin nahi izan zuen elkarriketa hura. Nire harridurarako, negar egiteari ekin zion kantxari begira zegoela. Asteguna zen, eta Araba Pabiloia hutsik zegoen, hala ere harmailetan pankarta bat ikus zitekeen zintzilikaturik. “Peras onena zara”, jartzen zuen bertan. Hura ikustean, “hemen maite naute” esan zidan. Orain berarekin egin dut topo berriz eta orduko pertsona berbera dela esan behar dizuet.

Duela bi urteko uda ez zen batere atsegina Taugres-Baskoniako zuzendari-tzarentzat. Josean Kerejetaren taldeak Joe Arlaukas saldu beharra izan zuen eta Zurbanoko harmailetan malkoei eutsi ezinik zebilen zalego gasteiztarra. Une horretantxe iritsi zen Gasteiza Perasovic. Inork gutxiak pentsatu zuen Arlaukasek utzitako hutsunea bete zezakeela croatiarrak. Hala ere, guztiok oker genbiltzan. Jugopastikako eta orain estatu zatikatua den Jugoslaviako selekzioaren jokalaria saskiak bonbardatzen hasi zen. Gauzak horrela, baskoniazale sutsuek zegoeneko izar berria zeukaten, Vladimir Perasovic alegia.

**P**erasovicek hunkitzen nauela aitortu behar dizuet. Orain hilabete batzu lesio larria izan zuenean, kroatiarrari elkarriketa egiteko aukera izan nuen, eta etxerantz harriturik itzuli nintzen.

## Adriatiko itsasoko izarra

Perasovic txapelduna izateko jaio zen. Europako eta Munduko txapelketak irabazi dituen jokalaria honek amets berria du begien aurrean, Baskoniak txapelketa bat eskuratzea hain zuzen. Kirolari kroatiarrak baskoniazaleei txapela eskaini nahi die: “Hemengo zalegoa munduko onena da. Ez da nire herrikoa bezalakoa. Hemen galtzen baduzu ere, maite zaituzte; han, berriz, ez”. Gasteiztarrek Baskoniari egindako harrerak Perasovic hunkitu dute, eta Andra Mari Zuriko plazan bizi izandakoak dakartzkion irudiak ez ditu sekula ahaztuko.





Kroatiarrak bere herriaren egoera ere ezin du ahaztu. Bere begiek distira egiten dute Croatiatz mintzo dela, "Kroatiako selekzioarekin jokatu izana dut harrotasunik handiena. Seirehun urte latzen ondoren Kroatiak askatasuna lortu du berriz, eta orain bakea nahi dugu, besterik ez".

Guri ez zaigu erreza Jugoslavia ohian gertatzen dena ulertzea. Handik hamaika jokalaririk etorri dira Euskal Herrira. Baskonian, esaterako, oraintxe ditugu bertako bi jokalaririk, hain zuzen, Sasa Radunovic montenegroarra eta Peras kroatiarra. Biok euren herrietan etsai; Gasteizko taldean, aldiz, lagun. Baina, hori bai, jokalaririk hauek oso bereziak izaten dira. Europako saskibaloiak eman dituen jokalaririk onenak ditugu, ezbairik gabe, Jugoslavia ohiko eskolakoak. Jaurtitzaila tebeak, langileak, apalak, lagun onak...

Peras kasu, ez da Dato kaletik harroharro ibiltzen diren horietakoa. Bere emaztea eta semea lagun irribarrez ikus dezakegu Gasteizko edozein kaletan. Bizimodu arrunta dute, berak adierazi digunez, "izarrak zeruan daude, ni beste langile bat naiz soilik".

### Gure herria gogoko

Perasovicek aitortu digunez, Kroatian badute euskaldunon berri, "ni hona etorri baino lehen, banekien nonbait euskaldunak bazirela eta baita hizkuntza bat zutela ere". Elkarrizketan, haur bihurriaren gisa, hau esan digu: "nik kroatiarrak egingo dut eta zuk euskaraz". Bere hitzetan, "orain Euskal Herriko egoera

**“Euskal Herrira etorri baino lehen, bazekien Perasovicek euskaldunok baginela eta baita gure hizkuntza genuela ere”**

hobeto ulertzen dut, lehen baino gauza gehiago dakizkit; zuen historia, hizkuntza, ohiturak atsegin ditut".

Orain hile pare bat Sabino Padilla medikuak esan zigun Peras benetako profesionala zela eta ez zuen gezurrik esan, ez eta hurrik ere. Taldeko gainerako lagunak kuluska egiten dutela, Vladomir aurkarien saskia bonbardatzen hasi ohi da. Bere sekretua lanean datza.

Askok eta askok Europako jaurtitzailerik onena dela diote. Berak, "ez, ez, hori ez da egia", erantzun du, baina Baskoniak duen langilerik onena bai behinik behin. Perasi hori galdetu ez badiogu ere, ezin digu ezetzirik esan. Galdeiezu bestela zure medikuei. Lesio larria izan zenuenean kantxara bueltatzeko sei hilabete gutxienez behar izango zenituela iragarri zuten; zuk, berriz, egoskor, gutxiago. Azkenean zure esana nagusitu zen zure lanak ez baitu sekula hutsik egiten, "lanak emaitzak dakartza". □

Ismael Diaz de Mendibil



**Ederki**

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industriala

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



**GUREA**

jatetxea

Konstituzio Eparantza, 10

Telefonoa: 24 59 33



# EZA

# Euskara zine aretoetara

**GALDAKAKO WORD BASKE** export (euskaldunon hitza mundura) entpresak gutun bat bidali digu bere proiektoreen berri emanez. Bertan euskarazko pelikulen emanaldia sustatzeko asmoa azaltzen du. Guztiz interesgarria izango zaizuelakoan, hona hemen eurek kontatutakoa

EUSKARA ZINE ARETOETARA (EZA) helburu argi batekin jaiotako proiektua da: euskararen normalkuntzari laguntzea zine aretoetara sarrarazi eta euskarazko filmek proiektatzea, batez ere ikusle haur eta gazteentzat.

Gaur egun euskara sarturik dago Euskal Herriko kulturaren eta komunikabideetan liburu, prentsa, irrati eta telebistaren bitartez, baina orain arte, oso salbuespen jakinetan izan ezik, ez da iritsi zine aretoetan aurkeztua izatera.

Gure proiektuan, neurri bateraino besterik ez bada ere, hutsune hori betetzen ahalegindu nahi dugu, euskaraz beren hezkuntza parte batean edo osorik hartzen duten haur eta gazteak hazi ez daitez, pentsatuz zinea

gaztelaniaz bakarrik ahogozatzen den hezkuntza horren parte bat edo entrenigarri bat dela, ezta zine aretoak euskararentzat debekaturiko alorrak direla ere. Hitz batean, gure ahalegin honek gaurko eta etorkizuneko euskaldunen belaunaldiak zinearen magia beren hizkuntzaz goza dezaten bideak jartzeko izango du helburu.

Jakinaren gainean gaude proiektu hau guztiz askonahia dela eta berorren fruituak ez direla epe laburrean umotuko, baizik eta lan serio eta jarraituaren bidetik etorriko direla. Baina, ere berean, erabat sinetsirik gaude heldua dela helburu horiek lortu ahal izateko lehen pausu sendoak emateko garaia.

Horregatik WORD BASKEEn aspalditxoan ari gara lanean EZA proiektua bideratzeko.

asapasa

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	U						K		E	Z
2	D						I	A	K	
3	A							T	I	K
4	Z	A	R			B	B	K		N
5	K							P		L
6	E	A			A	R	K	U	P	E
7	N						A		H	B
8	A			R	I			I		E
9		R	I	O		B	E	L	A	R
10	T	U		A			B	E	T	A

### ZEHARRETARA

1. Ezeztatuak. Ezeztatzeke.
2. Konbokatoriak.
3. Etxaurrea. Nahi gabe egiten den keinua.
4. Errusiako enperadore. Bilbo Bizkaia Kutxa. Nafarroako autoetan.
5. Potasioa. Bokal errepikatua. Fosforoa. Berrogeita hamar.
6. Eusko Alkartasuna. Arkuen azpiko aldea.
7. Afrikako herrialdea. Herri Batasuna.
8. Bokal errepikatua. Nori atzikia. India. Espainia.
9. Gasteizko kafetegi ezagun bat. Zelaietan hazten da.
10. Ohola. Astia.

### GOITIK BEHERA

1. Atzean utzi berri dugu urtaroa. Tarragonako autoetan.
2. jarduna adierazen duen atzikia. Arabako bailara.
3. Euskal mitologiako jeinu gaiztoa. Kontsonantea.
4. atziki jentilizioa. (Ald.) Neska izena.
5. Arabako herri bat. Lehena.
6. Oihal zatia. Boroa.
7. Nola adierazten duen atzikia. Potasioa. Unidad Alavesa. Euskal Batasuna.
8. Kanpo. Partido Popular. Txima, adats.
9. Ari, jardun. Euskal Herria. Kanpo.
10. Azkena. Bru-hezurra.

## ANBOTO

TABERNA - JATETXEA  
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -  
01001 GASTEIZ



## GORETTI ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea  
Tfno: 13 18 55  
01005 - GASTEIZ



## ARTEPAN

Artisau  
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

EZAK guztiz esperientzia berria izan nahi du: Euskal Herrian, zine aretoetan, ere erregular eta jarraituan euskaraz bikoiztutako filmeak proiektatzea, eskola-garaian dauden gazteen osagarri pedagogiko gisa. Filmak alde aurretik zirkuito komertzialetan estreinaturikoak izango dira eta haien eduki pedagogikoa eta arrakasta komertzialaren arabera hautatuko ditugu.

Filosofia oso argia da: ahalik eta ikastola eta ikastetxe (hala publikoa nola pribatu) gehienetara heltzea. Gure ahalegin handiena OHOKo ikasleengana zuzenduko dugu. Proiektzioak eskola-ordutegian izango dira, goizetan nagusiki eta beti ere aretoen ordutegi komertzialetatik kanpo.

Hau honela, interesatuak zaudeten guztiok informazio gehiago jaso dezakezue honako helbide honetara jotz gero:

**WORD BASKE**

(bideo eta bikoizketa produkzioak)  
Euskadi kalea, 6 - 9 Dptm  
48960 GALDAKAO (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 - 456 57 04



**irri eta farra**



Bi lagun basoerdiak hartzen ari dira eta batak besteari zera esan dio:  
- aizan, ardoak gerrako balak baino jende gehiago eraman omen din beste mundura  
-Nik nahiago diñat ba, gorputza balaz baino, ardoz beteta eduki



1	U	K	A	T	U	A	K	E	Z	10
2	D	E	I	A	L	D	I	A	K	9
3	A	T	A	R	I	A	T	I	K	8
4	N	A	K	B	B	K	H	A	Z	7
5	L	P	A	V	A	P	L	K	Z	6
6	E	A	R	K	U	P	E	A	5	
7	H	B	E	R	I	A	V	E	4	
8	A	R	I	E	L	E	3	3	3	
9	R	I	O	B	E	L	A	R	2	
10	L	A	V	L	A	B	E	T	A	1

Mozkor-mozkor eginda etxera sartu da, handik ordu laurden batetara kristoren oihuak bota dizkio emazteari?  
- Maritxuuuuuuuuuuu! Argia piz ezazu! ueste dut gizon bat dagoela ohe azpian!  
- Lasai zaitetz, zeu zara eta!

Gizon bat, dardarizoa zuela eta, medikuarengana doa ea erremedioren bat aurkitzen dion geldirik egon ahal izateko.  
Sartu eta medikuak:  
-Asko edatzen al duzu?  
-Bai zera! Erdia baino gehiago erori

KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK

**zurbeltz**

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

*vitrales*

**BEIRATE ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tf: (945) 14 64 10  
GASTEIZ

tren, hegazkina eta itsasontzi txartelak • kotxeak alokatu • txangoak • feria eta kongresuak • negozio bidaiak • hotelak eta apartamentuak  
**ELURRETAKO ERRESERBA - kontsultatu bulegoan**  
**IKASKETA BIDAIAK - PREZIO BEREZIAK**

**ARABA BIDAIAK**

Siervas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)  
Abrevadero (Frantzia kalea ondoan)  
28 21 88 GASTEIZ

# kultur agenda ■ URTARRILA ■

## bertsolariak Gasteizko plazara

### Sarrerak:

aldez aurretik: 500 pta  
Axular, Herrikoia eta Bagaren  
egunean bertan: 700 pta  
Principal Antzokian

antolatzailleak:



GEU GASTEIZ

babeslea:



**GEU ELKARTEAK** antolaturik eta Arabako Foru Aldundiaren babesean egingo den bertso saio hau, Gasteizen inoiz izan den bertso ikuskizunik handiena da, bai partaideen aldetik, bai ikuskizunerako aukeratu den areto-arengatik.

Horrela, bertsolarietak Gasteizen eta Euskal Herri osoan izan duen gorakadari erantzun egokia ematen zaio, bertsolarietak gure hiriko bertsozale gero eta ugariagoi tamaina honetako ikuskizun bat zor ziela uste baitugu. Eta errepika dadila gehiagotan.

Joserra Garzia, "Hitzetik Hortzera" ETB 1-eko bertsolarietzari buruzko saioaren aurkezlea izan da. Bertso saio askotan gaijartzaile aritutakoa ere bai.

Andoni Egaña, azkenengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako txapel-duna. Gasteizen urte askotan bizi izandakoa. "Balinda" ETB 1-eko lehiaketaren aurkezlea.

Sebastian Lizaso ere duela bost urteko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren irabazlea dugu.

Jon Sarasua eta Iñaki Murua punta puntako bertsolariak dira, nahiko gazteak eta, hala ere, esperientzia handikoak bertso munduan.

Unai Iturriaga eta Igor Elortza oraingo belaunaldi berrien izarrak ditugu. Publiko gazteena da gehienbat bi horien jarraitzaile sutua.

Urtarrilak 8 • Igandea  
Principal Antzokian  
eguerdiko 12etan

**Andoni Egaña  
Jon Sarasua  
Iñaki Murua  
Igor Elortza  
Sebastian Lizaso  
Unai Iturriaga**

Aurkezlea:

**Joserra Garzia**



**GEU elkartek ekitaldian inkesta bete zenutenontzako oharra:** zozketa egin ondoren, datorren urtarrilaren 8an «bertsolarioak Gasteizko Plazara» izeneko bertso jaialdia ikusteko bina sarrera-txartel honakook irabazi duzue:

Vicente Gil de Paules

Gorka Perea

Leire Vitoria

Miriam Beltran

Cristina Arteaga

Miren Karmèle Elejalde

Irabazleokin GEU-k jarriko gara harremanetan.

On egin digula saioak!

bar • restaurante • GASTEIZ  
ALBÉNIZ  
PORTAL DEL REY 9

Benitz  
liburudenda  
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14  
GASTEIZ

**Xabier**  
taberna  
musika ona  
eta giro  
ezinhobea  
Kutxileria 23  
GASTEIZ

DA • URTARRILA • KUL



**Laugarren Maketa  
Lehiaketa**

Abenduak 16  
Donostiako «Top  
Donosti» aretoan  
kontzertua

**6nemen9**  
(aurtengo irabazlea)

**sorotan bele**

**Bernardo Atxaga**



**Zeruak  
lezioa**

Urtarrilaren 19an  
8etan  
Villa Suson

antolatzailea



babeslea



S  
u  
k  
a  
l  
d  
e  
  
t  
x  
o  
k  
o  
t  
i  
k

EGIN ! • SUKALDE TXOKOTIK • ON EGIN! • SUKALDE

**DIETETIKAN JAKITUN** direnen arabera, gosariak eguneko otordurik oparoena behar du; afariak, berriz, arinena. Hori kontutan izanda eta Gabonetan hartu ohi diren soberako kiloak arintzeko asmoz, plater osasungarri eta gozo batzu aurkeztuko dizkizuegu jarraian egun ba teko ohiko jatorduak egoki gobernatzeko.

**Gozaria**

**Osagaiak** (pertsona bakoitzeko):

- baso bat laranja ur lezitina, garagardo
- polen goilarakada altxagarria eta ezitia.
- batez
- Katilu bat soia esne, Ogi integral zerra bi,
- patez horniturik

**Nola egin:**

Bota plena laranja urean eta irabiatu gero. Erantsi esnari osagai guztiak.



**Bazkaria  
Entsalada mistoa**

**Osagaiak:**

- letxuga
- pepinoa
- tipula
- azanario xehetua
- tomatea

**Nola egin:**

Nahasi osagaiak elkarren artean eta bota gainetik oilbondoa



batez. Gero horri gaineratu olibondoa eta hru edo lau gazta pusketa. Erabili erabiagailua jakia erabat txikitzeko

**Kalabazin krema**

**Osagaiak:**

- kilo bat kalaazin
- kilo erdi bat patata
- tipula handi bat
- perrexil asko
- gatza

**Nola egin:**

Egosi lapiko batean osagai guztiak ur apur

**Datil beteak**

**Osagaiak:**

- datilak
- almendra
- xigortuak
- Igurtzeko gazta

**Nola egin:**

Kendu hezurra datilei Ezarri hutsune bakoitzean gazta pitin bate eta almendra aleba



**Afaria**

**Osagaiak** (pertsona bakoitzeko):

- bi udare labore
- bi mami (edo gatzatu)
- bi bat goilarakada
- goilarakada bat ezti



*Bacalao Giraldo*



- Egunero makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN
- “Kalitatea eta erosotasuna zure esku”

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz





# URTE BERRA, ABAND BERRA



# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaría, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	





# Arabako aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskatu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

Diputación  
Foral de Alava

Departamento de Obras Públicas,  
Transportes y Medio Ambiente



Arabako  
Foru Aldundia

Herrilan, Garraio eta  
Ingurugiro Saila

Sancho el Sabio Fundazioa